Didaktikaria: Xabier Zubizarreta Azpitarte

Zer egingo zenuke mundua amaituko balitz?

Oraindik ere entzuten dira ahotsak diotenak mundua edozein egunetan desagertu daitekeela, esate baterako, asteroide batekin talka egin ondoren. Halako egoera batean, mundua laster amaituko dela jakinez gero, zer egingo zenuke?

Gai hipotetiko bat aireratzen du Idoia Torregaraik irratsaio honetan: jakingo bagenu mundua bukatzera doala, zer egingo genuke? Historian izan diren iragarpen batzuk seinalatu ondoren, berak zer egingo lukeen kontatuko digu.

Irratsaio horretatik abiatuta, ariketa hauek dauzkazu hemen:

- Osatu historian egin izan diren zenbait iragarpen.
- Entzun irratsaioa eta idatzi hizlariak zer egingo lukeen.
- Gai hori komentatu taldean, baldintzazko perpausak erabiliz.

Entzun aurretik

Historian zehar beti egin izan dira iragarpenak, egun jakin batean mundua amaituko dela esateko. Ezagutzen al duzu horietako profeziaren bat?

Segidan, horietako profezia batzuk dituzu. Lotuko al dituzu datak eta jendearen usteak? Bukatzeko, entzun audioa asmatu duzun ala ez jakiteko.

1666 2000 1954 2012 Erromatarren garaia Erdi Aroa

Zer uste zuten?	Data
Hiria sortu eta 12. urtean edo 120. urtean suntsituta geldituko zela.	
Milurtekoaren aldaketa zela-eta, jende bat aztoratuta zen munduaren amaiera iritsiko zela pentsatuz.	
Deabruaren zenbakia dela-eta, pentsatu zuten deabrua mundua suntsitzera etorriko zela.	
Estralurtarren mezuak jaso omen ziren, ziotenak munduan amaiera iritsiko zela.	
Ordenagailuak erotu egingo zirela zioten.	
Maien profezia batek zioen munduaren amaiera urte horretako abenduaren 21ean iritsiko zela.	

https://labur.eus/0Dz6P

euskadi irratia

Didaktikaria: Xabier Zubizarreta Azpitarte

Entzun bitartean



Irratsaio honetan, Idoia Torregaraik eta irratiko bi entzulek kontatzen digute zer egingo luketen mundua amaitzera doala jakingo balute. Entzun audioa eta idatzi hitz gutxitan egingo lituzkeen ekintza horiek.

1. Nora joango litzateke entzulea?

_____

2. Zer egingo luke 2. entzuleak?

_____

3. Zer erosiko luke Amaiak?

_____

4. Zer jango luke?

_____

6. Zer ikasiko luke?


_____

https://labur.eus/SjFOh

euskadi irratia

Eta zuk zer egingo zenuke?

Guk zer egingo genukeen egoera horretan kontatuko dugu. Baina aurretik entzun Idoia Torrealdairen azken desioa eta idatzi hitz gutxitan.



https://labur.eus/LPt2x

Komentatu taldean puntu hauek:

- Eta zu zer pertsonaia ospetsurekin egongo zinateke? Eta zer egingo zenuke berarekin?
- Mundua bukatzera doala jakinez gero, zer bidaia egingo zenuke?
- Zer bazkari/afari egingo zenuke?

Kontuan hartu gai honetaz hitz egiteko, esaldi hipotetikoak erabili behar dituzula:

- Mundua bukatuko balitz, lagunekin parranda handia egingo nuke.
- Aukera izanez gero, Obama presidente-ohiarekin elkartuko nintzateke.
- Ba, niri Bernardo Atxagarekin egotea gustatuko litzaidake.

Erantzun-orria

Entzun aurretik

Hiria sortu eta 12. urtean edo 120. urtean suntsituta geldituko zela. (Erromatarren garaia)
Milurtekoaren aldaketa zela-eta, jende bat aztoratuta zen munduaren amaiera iritsiko zela pentsatuz (Erdi Aroa)
Deabruaren zenbakia dela-eta, pentsatu zuten deabrua mundua suntsitzera etorriko zela. (1666)
Estralurtarren mezuak jaso omen ziren, ziotenak munduan amaiera iritsiko zela. (1954)
Ordenagailuak erotu egingo zirela zioten. (2000)
Maien profezia batek zioen munduaren amaiera urte horretako abenduaren 21ean iritsiko zela. (2012)

Transkripzioa

IDOIA TORREGARAI. Zer egingo zenukete, bihar amaituko balitz mundua? E! Hauxe da planteatzen degun (dugun) galdera.

MANU ETXEZORTU. Imajina ezazu mundua bihar bukatuko dela. Zer egingo zenuke?

IDOIA TORREGARAI. Hori da. Bai. Historian zehar munduaren akabera aurreikusi duten (uneen) errepaso txiki bat egingo dugu.

MANU ETXEZORTU. Bale. Oso ondo.

IDOIA TORREGARAI. Bai? Lehendabizikoak erromatarrak izan ziren.

MANU ETXEZORTU. Hara! Horiek ere esan zuten.

IDOIA TORREGARAI. Bai. Erroma fundatu eta 12 urtetara suntsitua izango zela uste zuten. Gutxi, denbora gutxi hiria sortzeko. Zergatik? Ba Romulori, e, Romulori, 12 arranok zenbaki mistiko horren indarra esan omen ziotelako.

Zer gertatu zen? Ba aurreko profezioa (profezia) bete ez zenean… Orduan pentsatu zuten erromatarrek edo, esan (zuten) "kalkuluak gaizki egin ditugu".

MANU ETXEZORTU. Bale. Matematika gaizki.

IDOIA TORREGARAI. Hori da. Arrano bakoitzak hamarkada bat ordezkatu zuen. Orduan esan nahi du Erroma sortu eta 120 urtetara suntsituko dela pentsatu zuten.

MANU ETXEZORTU. Bai.

IDOIA TORREGARAI. Orduan, profezia hau ere, 120 urte, iritsi zen. Eta Erroma ere ba, ez zen suntsitu.

Gero, noski, milurteko aldaketarekin ere…

MANU ETXEZORTU. Hor beldur ikaragarria sortu izan da beti

IDOIA TORREGARAI. Hor ere beldur ikaragarria sortu zen. Erdi Aroan, noski, 999. urtetik milagarren horretara…

MANU ETXEZORTU. Klaro!

IDOIA TORREGARAI. Ba, klaro! E, bueno, jendea hasi zen esaten: "aldatu egingo da, hau suntsitu egingo da!", tal, tal, tal… (eta abar, eta abar, eta abar)

MANU ETXEZORTU. Mundua bukatuko da

IDOIA TORREGARAI. Zer pasa zen hor? Ba, bueno, jendea ez zela enteratu. Orduan ez zegoen whatsapik eta horrelakorik. Orduan lasai ederrean bizi ziren, presiorik gabe. Orduan "sin pena ni gloria" (besterik gabe) gertatu zen toki batzuetan. Beste batzuetan, ba bueno, hiri handiagoetan eta…

MANU ETXEZORTU. Nahiko lan izango zuten jatekoa bilatzen.

IDOIA TORREGARAI. Horixe esan behar nuen, baina bueno… Hor egon zen baita ere aztoramendu-momentu bat.

MANU ETXEZORTU. Krisi-momentu bat, ezta?

IDOIA TORREGARAI. Bai. Gero pixka bat aurrerago segituta, 1666. urtean, klaro, 666 deabruaren zenbakia zela eta, hor ere aurreikusi zuten, noski, deabrua etorriko zen, hau dena, irekiko dira lurrak, eroriko gara... Baina deabrua, bistan denez, infernuko etsaia, beste zerbaitetan arituko zen, edo despistatu egin zen, ze urte horretan ez zen pasa.

1954an, berriz, Martin andrea, Chicagoko etxeko andre bat zen, eta idazketa automatikoaren bidez estralurtarren mezuak jaso zituela esan zuen…

MANU ETXEZORTU. A bai?

IDOIA TORREGARAI. Eta abenduaren 21ean amaituko zela esaten zuena. Idazketa automatikoa da, ba hori, zure borondatearen gainetik(an) idazten hasten zera (zara), eta hori, mezu hori idazten zu(e)n. 2000. urtea iristerakoan ere…

MANU ETXEZORTU. A bai. Bai.

IDOIA TORREGARAI. Hau da, 1999, kaparrada ederra… Izan gendun (genuen). Ordenadoreak eta denak, denak deszeratu egingo zirela, erotu egin zirela…

MANU ETXEZORTU. Bai. Bai.

IDOIA TORREGARAI. Eta klaro, misil nuklear guztiak, denak bota egingo zituztela…

MANU ETXEZORTU. Hori da.

IDOIA TORREGARAI. Eta bueno, halaxe. Gero zer pasa zen? Ba Windows 2000 ere iritsi zela, eta dena. Nahi dut esan aurrera segitu dula (duela). Baina azkeneko berriena ba 2012. urtean Maien profezia horrekin baita ere…

MANU ETXEZORTU. A bai! Egia!

IDOIA TORREGARAI. Hau ere, abenduaren 21ean izan behar zuela bukaera esan zuen. Orduan ba, ze esango dizut ba, ez dakit 2880 arte iraungo degun(dugun), baina oraingoz behintzat hemen gaude.

MANU ETXEZORTU. Bale.

IDOIA TORREGARAI. Bizitzaz gozatzen.

MANU ETXEZORTU. Hori da.

Erantzun-orria

Entzun bitartean

1. Nora joango litzateke entzulea? (Aizkorriko tontorrera)
2. Zer egingo luke 2. entzuleak? (Ondo gosaldu eta larrua jo)
3. Zer erosiko luke Amaiak? (Barruko arropa)
4. Zer jango luke? (Dozena bat arrautzarekin egindako patata-tortilla)
6. Zer ikasiko luke? (Arpa jotzen)

Transkripzioa

MANU ETXEZORTU. Hori da. Zer egingo zenuke bihar mundua amaituko balitz? Batek dio, "Ni Aizkorri tontorrera igoko nintzateke suntsipena toki on batetik ikusi ahal izateko". Beste batek dio "Azkeneko eguna balitz, ondo gosaldu eta larrua joko nuke".

IDOIA TORREGARAI. Begira!

MANU ETXEZORTU. Idoia, zuk zeure ranking partikularra ere egina daukazu, ezta?

IDOIA TORREGARAI. Bat, barruko arropa garbiarekin egon, erosi eta garbia…

MANU ETXEZORTU. (barreak). Oso ondo.

IDOIA TORREGARAI. Gero, bigarrenetako bat egingo nukeena, hau, joan banketxera eta esan hortxe leihatilan dagoenari: "Eman nire diru guztia!"… Gozamen hori, esateagatik hori, ezta?

MANU ETXEZORTU. Bai.

IDOIA TORREGARAI. Hartu eta aterako nintzateke eta. Eta gero, beste bat, baita ere, inportantea iruditzen zait deskantsatuta iristea. Behintzat, siesta egingo nuke.

MANU ETXEZORTU. Siesta eder bat.

IDOIA TORREGARAI. Egun horretan ere siesta egingo nuke. Espabilatuta nago, gero, bukatuko degu (dugu) baina deskantsatuta…

MANU ETXEZORTU. Hori da. Baina erne egon dadila behintzat, ez?

IDOIA TORREGARAI. Gero baita ere ikasiko nuke, hau baita ere, arpa jotzen…

MANU ETXEZORTU. Arpa jotzen?

IDOIA TORREGARAI. Arpa jotzen hasiko nintzateke. Gero emozio fuerteenak, nahiz eta munduaren bukaera izan, ez dakit…

MANU ETXEZORTU. Bai?

IDOIA TORREGARAI. Halako adrenalina-subidoi bat edukitzeko, Igeldoko montaña suizara (suitzar mendira) igoko nintzateke…

MANU ETXEZORTU. …azken egunean.

IDOIA TORREGARAI. Azken egunean.

MANU ETXEZORTU. Bale. Oso ondo.

IDOIA TORREGARAI. Gero, baita ere, batek esan du mariskada hartuko lukeela. Nik, berriz, dozena bat arrautzako patata-tortilla…

MANU ETXEZORTU. Hori da.

IDOIA TORREGARAI. …jango nuke.

MANU ETXEZORTU. Pikutara kolesterola!

IDOIA TORREGARAI. Hala! Kito! Eta txorizo-mutur batekin gainera!

MANU ETXEZORTU. Bale. Bale.

Eta zuk zer egingo zenuke?

Idoiaren azken desioa:
(Egan taldeko abeslariarekin batera kantatu abesti hori, eta berarekin oheratu.)

Transkripzioa

MANU ETXEZORTU. Eta azkenekoa.... musika bidez, musika bidez, Egan (musika-taldearen) eskutik (kantua).

Beraz, azkenekoa balitz hau kantatuko zenuke.

IDOIA TORREGARAI. Bai. Xabier Saldiasekin (Egan taldeko abeslaria) batera, lepotik heldu biok eta hauxe kantatuko nuke berarekin. Eta gero lo, ez dut esaten Xabierrekin baina… hori ere bai, biak egingo nituzke.

MANU ETXEZORTU. Hau balitz bizitzako azken eguna eta mundua bukatzera doala jakingo bazenu, zer egingo zenuke?

